

**HONDARRIBIKO KIROL PORTUAN MAKINAK HORNITU, INSTALATU ETA
MARTXAN JARTZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA (ITSAS ATARI
AUTOMOTOREA).**

INDIZEA

- 1.- XEDEA
- 2.- AURREKARIAK
- 3.- JARDUKETEN DESKRIBAPENA
- 4.- INGURUMEN KUDEAKETA ETA KALITATE SISTEMA
- 5.- ESKULIBURUAK ETA GARANTIA
- 6.- DOKUMENTAZIOA

ERANSKINA:

EZAUGARRI TEKNIKOEN ZERRENDA.

1. XEDEA

Agiri honen xedea ITSAS ATARI AUTOMOTORE baten hornikuntza, instalazio eta martxan jartzeko oinarri izango diren ezaugarri teknikoak zehaztea da, proposamen ekonomikoan eskainitako prezioengatik.

2.- AURREKARIAK

Euskadi Kirol Portua, SA enpresak egun itsas atari automotorea du Hondarribiko Kirol Portuko ontzitegian itsasontziak altxatu eta erriatzeko, 2001eko abuztuan erositakoa.

Itsas atari automotore hori ezinbesteko elementua da Hondarribiko Kirol Portuan. Xedea behar duten kirol itsasontziak itsasotik ontzitegira altxatzea da, itsas atari automotore horrek egindako lana enpresaren zerbitzu garrantzitsuetako bat da, kirol portuaren eta zerbitzuak ematearen ikuspegitik.

Egungo atari eta hobiak zerbitzua ematea mugatzen digu, atari-garabiaren zabalera gehienez 4.30 metroko zabalera duten itsasontziak gelditzeko aukera ematen digu, handiagoak diren itsasontzien maniobrak galduz.

Itsas atari automotoreak 11.900 lan ordu dituela aipatu behar dugu, eta asko izan dira azken urte hauetan izandako matxurak.

Itsas atari automotorea aldatzeko justifikazioa dagoenarekin alderatuta dimentsio handiagoa duen hobia egitea da.

3. JARDUEREN DESKRIBAPENA

ITSAS ATARI AUTOMOTOREA Eranskinean deskribatutako ezaugarri teknikoen arabera emango da.

4. INGURUMEN KUDEAKETA ETA KALITATE SISTEMA

Kontratatzan duen enpresak honako egiaztagiriak izan beharko ditu:

1. ISO 9001:2000.- Egiaztagiria arauaren egilearen izenean aurkeztu beharko da, eta ez dira baliagarriak izango erabilitako materialen egiaztagiriak.
2. Produktuen kontserbazio Eskuliburua aurkeztu beharko du egileak.
3. Egilearen garantia.

5. ESKULIBURUAK ETA GARANTIA

Esleipendunak aurkeztutako elementu bakoitzaren mantentze eskuliburua aurkeztu beharko du.

GARANTIA BALDINTZAK

5.1. Garantia epea "Aurkezte eta martxan jartzeko akta" sinatzen den momentuan egongo da indarrean.

5.2. **Gutxieneko garantiaren** epeak, aurkezte eta martxan jartzeko akta eman ondoren, hauek izan beharko dira:

24 hilabeteko garantia fabrikazio akats edo ezkutuko akatsen aurrean.

Haren zabalpena baloratuko da, eta epe horren barruan esleipendunak hau egin beharko du:

5.2.1 Beharrezkotzat jotzen diren konponketak egin eta Itsas Atari Automotorearen materialaren akatsen edo eraikuntzaren edo haren diseinuaren ondoriozkoak direnak.

5.2.2 Konponketa egin, Euskadiko Kirol Portua, SAK beharrezkotzat jotzen bada, matxura jakinarazi eta gehienez 24 orduetan eta matxura deia egin eta gehienez 4 orduetan obrara heldu behar da.

5.2.3 Askotan ematen diren matxuren kasuan, diseinu edo fabrikazio akatsak direnean, garantia indarrean dagoen bitartean esleipendunak akatsa konpontzeko beharrezko baliabideak ezarriko ditu. Bestela, garantia epea zabalduko da akatsa konpondu arte.

5.2.4 Goian aipatutako baldintzak ez betetzekotan, esleipendunak Administrazio Klausulen Agirian ezarritako zigor baldintzen menpe egongo da.

5.3. Eskaintzaileak ondorengo informazioa barne hartu beharko du bere eskaintzan:

5.3.1 Osotasunerako garantia, baita osotasuna baino garantia epe handiagoak izan dezaketen elementu mekanikoetarako ere. Estaldura estraren denbora zehaztuko da eta honek esku lana, materiala eta ordezkioak edo biak barne hartzen dituen.

5.3.2 Ekipoaren osotasunerako bermedunaren izena eta helbidea.

5.3.3 Elementu ezberdinen bermedunak ezberdinak badira, bermedun bakoitzak sinatutako dokumentu formala beharko da, bakoitzaren epeak eta berme baldintzak zehaztuz. Informazio hau aipatzen ez bada, eskaintzailea kontratuaren xedea den ondasunaren osotasunaren bermeduna dela ulertuko da.

6.- DOKUMENTAZIOA

- Tailerraren eskuliburua.

- Langileek ekipoa erabiltzeko beharrezko formazio eta entrenamendu dokumentazioa.

- Itsas Atari Automotorea kontserbatzeko egoera ona bermatuko duen ekipoaren prebentzio mantentze plana.

- Ekipoen Adostasun Egiatagiriak eta segurtasun arauak, langileek Lan Ekipoak erabiltzeko segurtasun eta osasun gutxieneko xedapenei buruzko uztailaren 18ko 1215/97 Errege Dekretuaren arabera.

- FEM-AEMaren erregulazioak egiaztatzen duen dokumentazioa, bai ekipoa baita osagai guztiak ere, baita AENOR CTN-58k (Igotze eta garraio makinentzako Normalizazio Batzorde Teknikoa) argitaratutako indarrean dagoen erreferentziako UNE Arauak ere.

Zentzu honetan, egileak makinaren zein osagaien dokumentazio eta egiaztigiri guztiak aurkeztuko ditu.

ERANSKINA

GUTXIENeko EZAUGARRI TEKNIKOEN ZERRENDA.

- Igotze Gaitasun Nominala: 34 Tn. (gaitasun eraginkorreko 32 Tn suposatuko ditu).
- Pareko habe azpiko barne altuera librea: 6.000 mm.
- Gurpilen arteko barne zabalera librea: 6.700 mm.
- Bertan pisatzeko ikusgailua duen urrutiko kontrola, zama muga duen elektronikoki pisatzeko sistema, display bidez brankan eta popan pisua adieraziz.
- Kontrolik gabeko kabina, urrutiko kontrola jartzeko oinarriarekin.
- LED argiak lan eremu osoa argitzeko, gaueko lana errazteko.
- Propulsio diesel-motora (egituraren berezko pisuaren arabeko beharrezko potentzia).
- Igotzeko 4 dibidieta.
- 9 metroko luzera duten 4 eslinga, 2.5 metroko jositako Sador babesgailua duen gehieneko pisua hartzeko.
- Eslingen arteko gutxieneko 2.200 mm-ko banaketa.
- 4 gurpil (horietako bi norabidezkoak eta motordunak).
- 3.5m/minutuko igotze abiadura.
- 0-40m/minutuko lekualdatze abiadura.
- Beroa gordetzekoa intsonorizatua egon beharko da, ez du 7 metrora 40dB-ak pasako.
- Segurtasun barandak eta goiko pasilloetan bizitza-lerroak izango ditu, eta sarrera eskaileretan segurtasun lerroa ere, jauzien kontrako mosketoiaz gain.
- Gutxienez larrialdiko 4 botoi izango ditu, bakoitza makinaren izkina batean, segurtasun arrazoiak direla eta makina gelditu ahal izateko.
- Era berean, 4 argi keinukari izango ditu eta makina mugitzen ari dela adierazten duen soinua.
- Sistema hidraulikoko hodiak 316 altzairu herdoilgaitzekoak izan beharko dira.
- Lotura ziriak txirikorda bikoitzekoak izan beharko dira.
- Instalazio elektrikoa, kable guztiek uretatik babestuak egon beharko dira eta konexio kutxek gutxienez IP-69 izan beharko dute.